

Argitaratzailea: Donostiako Hedabideak S.L.  
 Lege Gordailua: 55-226-05  
 Zuzendaria: Aritz Sorzabal  
 Kudeatzailea: Karreke Urbistondo  
 Egileta nagusia: Katalina Eleizegi 36 behetza  
 Telefonoa: 943 44 72 36  
 Faxa: 943 44 65 32  
 E-posta: donostia@inutxulokohitza.info

Webgunea: www.inutxulokohitza.info  
 Iriztia: iriztia@inutxulokohitza.info. 647 319 764  
 Hiria: hiria@inutxulokohitza.info. 647 319 769  
 Kirola: kirola@inutxulokohitza.info. 647 319 767  
 Agenda: agenda@inutxulokohitza.info. 647 355 665  
 Publizitatea: donostia@ragarri.net.  
 943 30 43 34. Loiola kalea 14-1. 2. bulegoa

Donostiako Hedabideak  
 S.L.ko ideak:

'Hitz' diruz laguntzen  
 duten erakundeak:

Donostiako  
 Euskararen  
 Udai Patronatua

Basera

BERTAKO  
 HE TARDIA, PZ

Gipuzkoako Foru  
 Aldundia

HITZA-k Bai  
 Euskarari!

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): 902 82 002 01



Sagardun Patzuergoko kideei proposatutako etiketa berriak biltzen dituen diptikoa argiratu dute.

Usandizaga Institutuko Diseinu Grafiko taldeak eta Sagardun Patzuergoak sagardo etiketen berritzeaz jardun dute 'Puntaren puntan' ekimenarekin.

# Sagardoaren berritzea

MIKEL GOÑI

**S**agardoa edari tradizio-  
 nala da. Baina, tradizioak  
 iraungo badu berritzea-  
 ren ondorio izango da. Honen-  
 bestez bide berriei begira behar  
 dute egon sagardogileek!  
 Bestalde, sagardotegi bakoitzak  
 berezkoa duen edaria prestatzen  
 du; sagar nahasketaren ondorioa,  
 egiteko moduaren ondorioa, edota  
 sagar-muztioa jaso duten kupelen  
 ondorioa.  
 Aurreko bi ideiei kasualitatea  
 gehitu, eta Puntaren puntan eki-  
 mena sortu zen. Amarako Usandi-  
 zaga Institutuan Diseinu Grafikoa  
 irakasten duen Itziar Aranburuk  
 azaldu duenez, «Sagardun Pat-  
 zuergoak 13 kide ditu eta guk 13  
 ikasle. Hortik etorri zen honetan  
 hasteko ideia».

13 sagardotegietatik 10etik sagardo

botilen etiketak «gafikoki ikusita,  
 zaharkituta zeuden», zehaztu du  
 Aranburuk. Paperezko zati horiek  
 ematen duten irudiaren inguruko  
 «hausnarketa ariketa gisa» planteat-  
 u dute Usandizagako ikasleek sa-  
 gardogile bakoitzari proposamena  
 egitea. Horretarako ikasleek disei-  
 nugile profesionalen modura jokat-  
 u behar izan dute: aurrekoa azter-  
 tu, balekoa mantendu, ideia berriak  
 nahastu eta horrekin ekoiz leari  
 proposamena egin. Sagardoa egite-  
 ko garaian bezala, alegia.  
 Azkeneko fase hau atzo egin zu-  
 ten Astigarragako Sagardoaren  
 Etxean Donostiatik joandako ikas-  
 leek, tipografia, koloreak, lerroak  
 eta abarrak azaldu, etiketa berri-  
 roko proposamena aurkeztu eta de-  
 fendatu dute.  
 Denak pozik, sagardogileek au-  
 rrerantzean, agian, erabiliko duten

irudi berria ezagutu baitute. Nahiz  
 eta ariketa honetan «inportanteena  
 hausnarketa piztea» zen.  
 Ikasleak ere, pozik. «Arlo hone-  
 tan inor gutxi aritu da diseinuan eta  
 lurralde birjina zen, eta hori oso  
 ondo dago», aitortu du Nerea del  
 Teso amaratarrek, Rezola sagardo-  
 tegiko arduradunarekin berriro  
 hitz egitera gerturatu baino lehen.  
 Bezeroa ere pozik azaldu da, berak  
 mantendu nahi zituen elementuak  
 Del Tesok ondo bildu dituelako.  
 Iban Bujanek, berriz, Hernani-  
 ko Zelaiari proposatu dio etiketa  
 berria. «Lan dezente izan da. Eta  
 oso era profesionalan egin behar  
 izan dugu, aurkezpena eta guzti».  
 Oraingo honetan sagardo-mai-  
 xuek ikasleengandik zer jaso ba-  
 daukate. Dirudienaz, sagardoaren  
 tradizioa diseinuaren bidetik ber-  
 rritu daiteke.



Iban Bujanek Hernaniko Zelaia sagardotegiaren irudi berria aurkeztu du. M.G.



Ekitaldian sagardogileek itxura berria zuten prototipoak jaso zituzten. M.G.

## A Agurrak



Zorionak!  
 Alcalan dagoen Eiharen partetik.

urtebetetzeak  
 urrezko ezteiak  
 ezkontzak  
 jaioberriak  
 jaunartzeak...

**agurrak**